# HARREMAN-FUNTZIOA

Harreman-funtzioari esker, gure iguruan gertatzen den guztia hauteman dezakegu, eta behar bezala erreakzionatu gertatutakoarekin.

**Funtzio horretan, hainbat organok hartzen dute parte:**



**Zentzumen organoak: inguruneko ………………. jasotzen dute: koloreak, formak, soinuak, zaporeak, temperatura… Sudurrak esaterako, usainak hartzen ditu.**

**Nerbio-sistema: nerbioak eta …………. nerbio sistemaren osagaiak dira. Nerbioek informazioa garunera bidaltzen dute eta berehala, informazioa interpretatu eta zer egin erabakitzen du.**





**Lokomozio aparatua: haren bidez ………. gaitezke eta joan gaitezke batetik bestera. Muskuluek eta hezurrek nerbioen bidez jasotzen dute garunaren agindua eta horren arabera jokatzen dute.**



*. Irudi bakoitza dagokion testuarekin elkarlotzeko gai izango zinateke?*




| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Garunak informazio hori interpretatzen du: mugitu egin behar da baloia harrapatzeko. | Garunak, nerbioen bidez, aginduak transmititzen dizkie hanka eta besoetako giharrei. | Hanka eta besoetako giharrek erreakzionatu egiten dute eta neskak baloia harrapatzen du. | Begiek hautematen dute baloia atera doala zuzen-zuzenean. | Informazioa garunera transmititzen da, ikusmen nerbioen bidez. |